



**JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,**

**ZIURTATZEN DUT:** Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2020ko irailaren 23an, **445** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

"**IKUSIRIK:** ARABA EUSKARAZ Elkartek, Arabako Ikastolen Federazioarekin eta Amurrioko Aresketa Ikastolarekin batera, 2020ko Araba Euskaraz eguna antolatu behar zuen.

**GERTUA IZANIK:** Araba Euskaraz Elkartek, Araban urteotan erakunde, elkarte, talde eta euskaltzale askoren eta askoren aspaldiko bultzadaz hainbat gauza egin izan ditu euskara sustatzeko.

**GERTUA IZANIK:** Jaiaren helburua, Araba osoan euskara eta euskal kulturaren hedapena ahantzi gabe, helburu Nagusia zera da, guztion ekarpena beharrezkoa den eremuan Amurrioko Aresketa ikastolak duen Hezkuntza proiektua euskalduna bermatzea (2 urterekin hasita DBH 4. mailara bitarteko 667 ikaslek osatzen dute).

**GERTUA IZANIK:** ARABA EUSKARAZ Elkartek Araba osoan euskararen normalkuntza prozesurako urratsak egin ditu eta ahal duen neurrian, Barrundiako udalerrian.

**GERTUA IZANIK:** ARABA EUSKARAZ Elkartek, Euskararen normalizazio-prozesuan, edozein hizkuntzarenean bezalaxe, funtsezko funtzioa betetzen duten herritarrak ahalduntzeko erremintak inplementatu ditu.

**GERTUA IZANIK:** Aurten, COVID-19 izurriteak sortutako egoera dela eta, 2020ko Araba Euskaraz eguna ezin izango da ospatu.

**ZERA ERABAKITZEN DUT**

**LEHENA.-** ARABA EUSKARAZ Elkartea erakundeak aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko Barrundiako Udalak 550,00 eurotako dirulaguntza luzatuko du (2020ko Aurrekontu Orokorretako 335.481.001 partida).

**BIGARRENA.-** Aurrenean aipatutako dirulaguntza berehala ordaintzea (Kutxabank- ES63 2095 3258 20 9119125991).

**HIRUGARRENA.-** Honako erabaki hau ARABA EUSKARAZ Elkartea erakundeari jakinaraztea."

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2020ko irailaren 23an.

